



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

 Enkarterrietako Museoa

PRENTSA-OHARRA

LIBURU BAT ETA ENKARTERRIETAKO MUSEOKO ERAKUSKETEAK GEHITU JAKOZ BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEN “LANTEGIETAKO EMAKUMEAK” PROIEKTUARI

- Bizkaiko Batzar Nagusien Enkarterrietako Museoak liburu eta erakusketa barri bat aurkeztu ditu, “Lantegietako Emakumeak. Cadagua haraneko 11 fabrika” izenekoak. Hareen bidez, Enkarterriko kultura-zentro horrek ikusgaitasuna emon gura deutso gizaldi eta erdian zehar Bizkaiko industrializazioan emakumeak bete dauen zeregin garrantzitsu eta ahaztuari
- Enkarterrietako museoak azken urtean egin dauen “Lantegietako Proiektuak askotariko materiala berreskuratu dau, eta horri esker Cadagua ibaiko lantegietako argazkiak, produktuak, laneko jantziak eta industriako makinak ikusi ahal izango dira. Bertan lan egindako emakumeen lekukotzak entzuteko aukerea be egon da.
- Erakusketa doan ikusi daiteke eta urte amaierara arte egongo da zabalik Enkarterrietako Museoan (Abellaneda-Sopuerta). Erakusketa honegaz jarraipena emoten jako gai berari buruz bihar arte zabalik egongo dan erakusketa txikiago bati. Beste erakusketa hori (“50etako emakume langileak. Landa eta lantegi artean” izenekoak) Bilbon jarri da, Bizkaiko Batzar Nagusietako Erakusketa Aretoan, eta bihar amaituko da.

(Bilbon, 2022ko apirilaren 12an). Bizkaiko Batzar Nagusiek “**Lantegietako Emakumeak. Cadagua haraneko 11 fabrika**” izeneko erakusketea aurkeztu dabe gaur Bilbon. Urtea amaitu arte egongo da zabalik Enkarterrietako Museoan. Horren dosi txiki bat lau astez egon da ikusgai Bizkaiko Batzar Nagusien Bilboko Erakusketa Aretoan. Erakusketea Enkarterrietako Museoaren **Lantegietako emakumeak** proiektuaren bigarren fasearen barruan dago, eta Bizkaiko industriari emakumeek bete eben leku garrantzitsua nabarmenduko dau. Enkarterrietako Museoak erakusketearen izenburu bereko liburuak be argitaratu dau Javier Barrio egilearen eskutik. Liburu horren aurkezpena be gaur egin da. Industria-munduko protagonistak gizonetzkoak bakarrik izan ziralako ustea ustela dala frogatzen dau liburuan jasotakoak.

Erakusketeak eta liburuak autormena egiten deutsee gizaldi eta erdi baino gehiagoz



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

 Enkarterrietako Museoa

(XIX. gizaldiaren erdialdetik XX. gizaldiaren amaierara arte) herrialdeko industrializazioan leku garrantzitsua bete eben Bizkaiko emakume guztiei. Erakusketako materiala Enkarterriko 11 lantegitako argazkiz, ilustrazinoz, produktuz eta makinaz osatuta dago, lantegiok gaur egun desagertuta dagozan arren. Euskadiko eskualde industrializatuenetakoa zan, eta lantegi horreetan emakumezkoek protagonismo handia eukien. Ehundaka lantegi, tailer eta industriagune edegi ziran urteetan Cadagua ibarreko udalerrietan. Erakusketan honeek agertzen dira: La Papelera, Lacabex Hermanos, Plaza Hermanos, Antonio Serrano y Plomos (lauak Zallan), La Encartada, Manufacturas Rodet y fábrica de Muebles (Balmaseda), Garsa (Gordexola), La Conchita (Sodupe) eta Rica Hermanos (Alonsotegi). Horreetan milaka emakume langilek egin eben behar. Lantegi batzuetan, emakumeak izan ziran beharginen gehiengoa.

Erakusketek, alde batetik, garai haretako egoera ekonomiko gogorra erakusten dau, eta, bestetik, eskualdeko industria-egiturea. Egitura hori ez zan siderurgian bakarrik zentrau, papera, kaxak, utezko edo espartzuzko zakuak, erretzeko papera, altzariak, txapelak eta hestebeteak be baegozan Enkarterriko ekoizpen-egituran. Ehun argazki zahar baino gehiago dira erakusketearen arimea, XIX. gizaldiaren amaieratik XX. gizaldiko 70-80ko hamarkadara bitartekoak, gehienak eskualdeko emakumezkoek eta hainbat kultur erakunde lagatakoak, azken horreen artean La Encartada fabrika-museoa be badagoala. Argazkien bidez bisitaria industria-giro horretara eroateko espazioa atondu da, eta Aline Soberonen hamaika ilustrazinoz osatu da, lantegiotan behar egiten eben emakumezkoen irudiakaz.

Erakusketan industriako hainbat pieza be badagoz, interes handikoak, horreen artean altzari tailer baten parte izan ziran XX. gizaldi hasierako hiru makina handi. Makina horreek (La Universal, Tupí eta Desgrosadora) Alberto Mardonesek laga ditu, eta Balmasedako tailerretan mende bat baino luzaroago erabili izan ziran makinaren adibide bikainak dira. Horreekaz batera, ekoiztiko pieza xumeak eta kontserbau diran dokumentu apurrak dagoz: Antonio Serranoren Fábrica de Papel de Fumar lantegiko XIX. eta XX. gizaldiko beharginen zerrendak edo Papelera Españolako ikasketaliburuak.

Cadagua ibaian zehar instalau ziran enpresek merkaduan arrakasta lortu eben objektu eta produktu ugari ekoiztu ebezan. Erakusketan horetariko batzuk dagoz: 1950eko hamarkadan Plaza Hermanosek arropa lisatzeko egindako plantxak, Zallako tailer handi bateko zenbait etxetresna elektriko —emakumezko askok egiten eben lan hor—, eta beste elementu sinpleago batzuk, baina oso ezagunak, horreen artean “El Elefante” komuneko papera. Bitxia bada be, oraindino hainbat lekutan kontserbau egin da paper hori. Laneko fitxak, laneko jantziak eta Rica eta La Conchita harigintzako elementuak be jasoten dira erakusketan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

 Enkarterrietako Museoa

MEMORIA HISTORIKOA: BIDEOAK ETA LIBURUA

Lantegietako emakumeak proiektua ikus-entzunezko bigaz osatzen da, ikerketa-prozesuan zehar bildutako lekukotasunak biltzen dituenak. Guztira, hogeta hamar personari esker (gehienak emakumezkoak) Enkarterrietako Museoa aukerea izan dau lantegi horreen funtzionamentuan, bizimoduan eta lan- baldintzetan sakontzeko. Erakusketearen izen bera, “Lantegietako Emakumeak. Cadagua haraneko 11 fabrika”, dauen argitalpenean be agertzen dan lan horrek beste ñabardura batzuk emoten ditu, erakusten diran materialetan agertzen ez diranak. Behargin horreek dinoskuenari esker, gugana heldu dira industria horreen antolaketeaz eta garaiko bizi-testuinguruaz berba egiten deuskuen alderdi pertsonalak eta lanekoak. Erakusketan, lau minutuko ikus-entzunezko film labur bitan jasota dagoz emakume horreetariko batzuen berbak.

Ikerketa lan guztia “Lantegietako Emakumeak. Cadagua haraneko 11 fabrika” liburuan batu da. Javier Barrio egileak banan-banan zehaztu dau 111 lantegiotako bakotxean emakumezko beharginek beteten eben lekua. Horretarako, testigantzak eta dokumentuak batu ditu; batutakoaren arabera, argi ikusten da emakume guztiok, milakak, zenbaterainiko garrantzia izan eben Bizkaiko lantegietan eta, ondorioz, Bizkaiko ekonomiaren garapenean. **Lantegietako Emakumeak** lanak apurtu egiten dau sendo erroturik dagoan aurre eretxi bat, ez ziralako gizonezkoak izan industria-munduaren protagonista bakarrak.

ERAKUSKETEAREN ETA LIBURUAREN: “Lantegietako Emakumeak. Cadagua haraneko 11 fabrika”

Bizkaiko Batzar Nagusietako Enkarterriko Museoa
Abellaneda auzoa (Sopuerta)
2022ko apirilaren 13tik urtea amaitu arte.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

 Enkarterrietako Museoa

NOTA DE PRENSA

LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA AMPLÍAN SU PROYECTO “OBRERAS” CON UN LIBRO Y UNA EXPOSICIÓN EN EL MUSEO DE LAS ENCARTACIONES

- El Museo de las Encartaciones, centro cultural propiedad de las Juntas Generales de Bizkaia presenta el libro y la exposición “Obreras. 11 fábricas del Cadagua”, que muestra el papel relevante y olvidado de la mujer en la industrialización de Bizkaia a lo largo de siglo y medio.
- Forma parte del trabajo de investigación “Obreras” que el museo encartado ha realizado durante el último año, un proyecto que rescata fotografías, productos, vestimenta laboral, maquinaria industrial y testimonios directos de mujeres que trabajaron en aquellas factorías que bañaban el curso del río Cadagua.
- La muestra es gratuita y estará abierta hasta finales de año en el Museo de Las Encartaciones (Abellaneda-Sopuerta). Es la continuación del pequeño “aperitivo” de la exposición “Obreras de los 50. Entre el campo y la fábrica” que estará abierta hasta mañana en la Sala de Exposiciones de la Cámara vizcaína, en Bilbao.

(Bilbao, a 12 de abril de 2022). Las Juntas Generales de Bizkaia han presentado hoy en Bilbao la exposición “**Obreras. 11 fábricas del Cadagua**”, que estará abierta hasta final de año en el Museo de Las Encartaciones, tras mostrar durante cuatro semanas una pequeña dosis en la Sala de Exposiciones de la Cámara vizcaína en Bilbao. La muestra, que forma parte de la segunda fase del proyecto **Obreras** del museo encartado, destapará de forma ampliada el relevante papel que tuvieron las mujeres en el mantenimiento de la industria de Bizkaia. Un libro editado por el museo encartado con el mismo título que la muestra, y presentado hoy por su autor, Javier Barrio, rompe también la idea preconcebida de que el mundo industrial estaba protagonizado solo por hombres.

La exposición y el libro son un reconocimiento a todas las mujeres de Bizkaia que tuvieron un papel relevante en la industrialización del país durante más de siglo y medio (desde mediados de siglo XIX hasta finales del XX). El material de la muestra está compuesto por fotografías, ilustraciones, productos y maquinaria industrial de 11 fábricas de Enkarterri –hoy desaparecidas- en las que la mujer fue protagonista en una de las comarcas más industrializadas de Euskadi. Fueron centenares las fábricas,



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

 Enkarterrietako Museoa

talleres y áreas industriales que se abrieron a lo largo de los años en los municipios que conforman el valle del Cadagua. La muestra se recrea en La Papelera, Lacabex Hermanos, Plaza Hermanos, Antonio Serrano y Plomos (las cuatro en Zalla), La Encartada, Manufacturas Rodet y fábrica de Muebles (Balmaseda), Garsa (Gordexola), La Conchita (Sodupe) y Rica Hermanos (Alonsotegi), en donde trabajaron miles de obreras. En algunas fábricas, las mujeres fueron la parte mayoritaria de la plantilla.

La exposición muestra, por un lado, la dura situación económica de aquella época y, por otra, la estructura industrial de la comarca que no estuvo centrada solo en la siderurgia, sino que la elaboración de papel, cajas, sacos de yute o esparto, papel de fumar, muebles, boinas e incluso embutidos, también tuvieron cabida en el tejido productivo de Enkarterri. Más de un centenar de fotografías antiguas que abarcan un periodo que va de finales del siglo XIX hasta los años 70-80 del siglo XX, forman parte del alma de la exposición, la mayoría proporcionadas por vecinas de la comarca y por distintas entidades culturales como la Fábrica-museo La Encartada. El espacio dedicado a trasladar al visitante a ese ambiente industrial a través de instantáneas, se ha completado con once ilustraciones de Aline Soberon que reflejan a las mujeres trabajando en las compañías mencionadas.

La muestra incluye también una serie de piezas industriales de mucho interés como tres grandes máquinas de principios del siglo XX que fueron parte de un taller de muebles. Estas máquinas (La Universal, Tupí y Desgrosadora) han sido donadas por Alberto Mardones y suponen un excelente ejemplo del tipo de maquinaria que se usó en los talleres de Balmaseda a lo largo de varios siglos. Junto a ellas, se incluyen sencillas piezas producidas y los pocos documentos conservados: listados de trabajadores del siglo XIX y XX de la Fábrica de Papel de Fumar de Antonio Serrano o libros de estudio de la Papelera Española.

Las empresas que se instalaron a orillas del Cadagua llegaron a producir numerosos objetos y productos que tuvieron éxito en el mercado. En la muestra se exhibirán planchas de la ropa fabricadas durante los años 50 en Plaza Hermanos, algunos electrodomésticos de un gran taller de Zalla en el que trabajaban numerosas mujeres, u otros elementos más sencillos, pero muy reconocidos, como el papel higiénico "El Elefante" que, sorprendentemente, se ha conservado en algunos lugares. También se incluyen fichas de trabajo, vestimenta laboral y elementos de la hilatura de Rica y La Conchita.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



MEMORIA HISTÓRICA: PIEZAS DE VIDEO Y UN LIBRO

El proyecto **Obreras** se completa con dos audiovisuales que incluyen testimonios recogidos a lo largo del proceso de investigación. Un total de treintena personas, la gran mayoría mujeres, han permitido al museo encartado profundizar en el funcionamiento, el modo de vida y las condiciones laborales de esas fábricas. Este trabajo, también presente en la publicación que lleva el mismo nombre que la exposición, “Obreras. 11 fábricas del Cadagua”, aporta matices que no se incluyen en el material expuesto. Gracias a las declaraciones de estas obreras se han podido rescatar aspectos tanto laborales como personales que nos hablan de la organización de estas industrias y del contexto vital de la época. En la exposición se podrán ver declaraciones en dos cortos audiovisuales de cuatro minutos de duración.

Todo el trabajo de investigación se ha reunido en la publicación. “Obreras. 11 fábricas del Cadagua”. En este escrito, su autor, Javier Barrio, ha hecho una semblanza de cada una de las 11 fábricas descritas, indicando el papel de las obreras, con testimonios y documentación, que nos recuerda la importancia que adquirieron miles de mujeres en las fábricas vizcaínas y, por consiguiente, en el desarrollo económico de Bizkaia. **Obreras** rompe con las ideas preconcebidas muy establecidas que limitaba el mundo industrial a la participación de los hombres.

EXPOSICIÓN Y LIBRO “Obreras. 11 de fábricas del Cadagua”

Museo de Las Encartaciones de las Juntas Generales de Bizkaia
Barrio de Abellaneda (Sopuerta)

Desde el 13 de abril de 2022 y hasta final de año.